

Aurki ekingo diete Irurako Ikastolako eraikin berriaren eraikuntza lanei

PROIEKTUA ▶ 1,5 miloi euroko kostua izango du; «esfortzu handia» izango dela diote bultzatzaileek

OBRAK ▶ Etzi jarriko dute eraikinaren lehen harria eta hamabost egun barru hasiko dituzte lanak ▶ 6



Ezker-eskuin: Miguel Amenabar, Marimi Ugalde eta Josune Aiestaran. I. GARCIA



D. LAUZIRIKA/BUSTURIALDEKO HITZA

BERNARDO ATXAGA ▶ IDAZLEA

«Gogoeta egitea da bidea beti niretzat»

'Markak. Gernika 1937' liburua kaleratu du asteasuarrak ▶ 4-5

hitza argazki lehiaketa






bidali oportetako argazkiak!

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 lagunentzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan




Bidaia Agentzia bidaide

Erribea, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercm.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



TOLOSA ▶ POLITIKA

Bildarratz da
berriro EAJko
zerrendaburu

E. Ezeiza ▶ Jokin Bildarratz aurkeztu zuten herenegun datozen lau urteetako EAJko zerrendaburu gisa. Ekitaldirako Zerkausia aukeratu zuten eskenatoki, «legealdi honetan egindako lanaren erreferentia», alkategaiaren esanetan. Berarekin batera izan ziren Udaleko alderdikideak; Markel Olano, Ahaldu Nagusirako hautagaia; Joseba Egibar, Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria eta hainbat herritar. Besteak beste, gaztedia eta ekonomia bultzatzea nabarmendu zuen Bildarratzek. E.E.



TOLOSA ▶

Garbiñek bere
lehen lana
aurkeztuko du
Fronton-en

Jazzak eta beste musika batzuk zipriztinduriko melodiak egiten ditu



Garbiñe abeslaria. HITZA

ERREDAKZIOA

Pop melodikoaz eta jazz kutsuko abestiez osaturiko erreperitorioa entzuteko parada izango da bihar gauean, Garbiñe musikariaren zuzeneko emanaldian. Abesteaz gain, Garbiñek kitarra ere jotzen du eta hiru musikarirekin etorriko da Tolosara: Txema Garces kontrabaxuarekin eta baxuarekin, Xabi Lopez kitararekin eta Mikel Errazkin teklatuarekin; azken hau arduratuko da zuzendaritza musikala. Kontzertua Fronton kafetegian izango da doan, 23:30etik aurrera.

Ibilian da Garbiñeren lehen lan diskografiakoaren izena. Diskoko abestiak ingelesez, frantsesez eta euskaraz daude. Jazzak eta beste musika batzuek zipriztinduriko pop melodikoa da Garbiñe Insausti hernaniarraren arrakasteko diskoaren oinarria. Lehengai nagusia, berak sorturiko hitz eta musikak. Eta hori gutzia bideratzeko tresna, entzulea berehala inguratzen duen ahots gozoa, jostalaria behar denetan, lilmurtzailea beste batzuetan.

Hamabost urte zituela hasi zen hernaniarra abesten eta abestiak sortzen. Gerora, etxean, sei abestiz osatutako maketa bat grabatu zuen. Hau Hirustako Mikel Errazkinnek entzun eta material horrekin zerbait egitea erabaki zuten. Hala, hortik hamar hilabetetara jaio zen bere lehen dabilizko diskoa, *Ibilian* izenburupean.

PILOTA ▶

Bihar hasiko da IV. HITZA
Txapelketa, 11 partidarekin

21 eskoletako haurrak eta maila handiko promesak ariko dira ekainera arte

ESTI EZEIZA

Bihar hasiko da IV. HITZA Pilota Txapelketa. Asteburu honetan hasi eta sanjoanak arte luzatuko da. Gero eta indar gehiago hartzen ari den txapelketa honetan, dena 21 eskoletako gaztetxoek hartuko dute parte.

Partidak adinarekin arabera herri eta ordu ezberdinetan jokatuko dituzte. Alegian txikiak jokatuko dute larunbatean, 18:00etatik aurrera. Albizturten, umeak ariko dira ostiraletan, 19:00etatik aurrera. Egun berean eta ordu berean kozkortuak Adunan lehiatuko dira. Bidegoianen berriz, asteartean izango dira partidak, 19:00etatik aurrera, eta hemen, kadete mailakoak lehiatuko dira. Bestalde, ostiraletan,



III. HITZA Pilota Txapelketako sari banaketa. I. GARCIA

Berastegin, 19:00etan hasita, jubenilen arteko partidak ikusi ahal izango dira. Azkenik, seniorrak eta etorkizunekoak Tolosan izango dira larunbat goizetan, 10:00etatik aurrera.

Txiki eta umeen arteko partidak 16 tantora izango dira. Kozkortu eta kadeteen artekoak 18ra. Amaitzeko, jubenil, etorkizuneko eta seniorren artekoak 22ra. Azken hiru maila hauen artean gainera, kanporaketa sistema erabiliko dute, hau da, partida galtzen duen bikotea txapelketatik at geratuko da.

Asteburu honetan bost herritan jokatuko dituzte pilota

partidak. Albizturten zortzi bikote lehiatuko dira: Balardi-Orbegozo, Amiano-Mugikaren aurka; Irasari-Otaegi Alberdi-Apaolazarekin; Galaraga-Urdanpilleta Urruzmendi-Alvarezaren aurka eta Arrue-Aizpuru Manterola-Urruzmendirekin. Alegian beste lau partida ikusi ahal izango dira: Urdapilleta-Senperena eta Altuna-Goikoetxearen artekoak. Martinez-Errandonea eta Irazustabarrena-Garinena; Merketegi-Martinez eta Olatre-Salaberriaren artekoak. Azkenik, Lezea-Zubillaga eta Gaztañaga-Mendia bikoteen artekoak. Bestalde, Adunan

kozkortuagoen partidak jokatuko dira: Matxinea-Arregi Leibar-Imazen aurka; Maia-Sanjurjo Erostarbe-Perezekin; Labaka-Barandiaran Manzidord-Lasaren aurka; eta azkenik, Sorozabal-Zabala Gaztañaga-Manterolaren aurka.

Berastegin hiru norgehiagoka jokatuko dituzte bihar. Alde batetik, Ezeiza-Esnaola eta Otamendi-Yerega bikoteen artekoak. Bestetik, Zabaleta-Jauregi eta Arratibel-Mendiaren artekoak. Amaitzeko, Odriozola-Manterola eta Arakistain-Urruzola pilotariak osaturiko bikoteen artekoak.

Etorkizuneko profesionalak

HITZA Txapelketan maila handiko gazteek hartzen dute parte. Horren adibide da, joan den urtean HITZA Txapelketan aritutako gazte askok profesionalen dihardutela orain. Esaterako Belloso, Oteiza eta Apraiz pilotariak daude. Aurtengoa, ondorengo pilotariak ariko dira besteak beste: Onsalo, Olaetxea, Baez II., Renobales, Mariñelarena, Elurbe; Jauregi eta Amantegi. Asteburu honetan 22 urtez azpikoan partida bakarra jokatuko da Beotibarren. Bertan Irazusta-Beloki eta Atxotegi-Otxandorenaren arteko norgehiagoka ikusi ahal izango da.

Baserriko produktua banatzeko **banatzailea** behar da
Tel. 943 69 20 54

Zerbitzaria behar da
Tolosako jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko
Tel.: 629 19 97 43

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jauntzetak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

GAZTELU ▶

Gaur 17:30ean osasunari buruzko hitzaldia

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko hitzaldiak izango dira urtean zehar Gaztelun. Lehenengo jardunaldia gaur izango da 17:30ean Herriko Elkartean. Landuko den gaia *Oroimen galera. Nola gutxitu edo arindu gaitz hau?* izango da. «Gaurkotasunezko hainbat gai jorratzea eta eguneroko bizimodurako ohitura eta praktika osasungarriak lantzea» dela jardunaldi hauen helburu nagusia azaldu dute antolatzaileek.

BELAUNTZA ▶

Larunbatean bodegetara irteera

Larunbaterako Belauntzako Kultur Etxetik Errioxako Badaran herriko hiru bodega ezagutzeko ibilaldia antolatu dute. Prezioa 25 eurokoa izango da eta bazkaria bodega batean izango da, Errioxako janaria dastatzeko aukera izango delarik. Izena emateko arratsaldeetan Kultur Etxetik pasa behar da edota 943 67 00 20 telefono zenbakira deitu.

LEABURU ▶

Makilaje ikastaro ezberdinak eskainiko dituzte

Udalak makilaia ikastaro bat antolatu du. Azalari dagozkion zaintzak ikastea eta makilaia teknika egokiekin aurpegia sanoago eta politago mantentzea izango du helburu ostegunetan emango diren ikastaroei. 19:00ak inguruan hasiko dira eta izena emateko epea etzi amaitzen da. Horretarako 943 68 22 28 deitu edo muli.orexa@udal.gipuzkoa.net-era idatzi beharko da.

TOLOSA ▶

Zine-forum saioa gaur, Leidor aretoan

Gaurko zien-forum saioan, Clint Eastwooden *Cartas desde Iwo Jima* filma eskainiko dute, Leidorren, 19:15ean eta 21:45ean.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Rocka eta irlandar festa Bonberenean

Kaotiko eta Residuos taldeen kontzertuak izango dira bihar; Trulach taldearen eskutik irlandar doinuak entzungai etzi

IÑIGO TERRADILLOS

Ekitaldiz beteriko asteburua antolatu dute Bonberenean. Hasteko, bihar, bi kontzertuz gozatzeko aukera izango da, Kaotiko eta Residuos taldeena, hain zuzen. Kaotiko taldea kaleratu berri duen azken diska aurkezteko asmoz dator Tolosara, *Destino escrito* izenekoa. 2001ko uztailean, hiru taldekidetik bizitza eman zioten Kaotiko taldeari, Kaos Etiliko taldeetik bereizi ondoren. Kaotiko Aguraingo taldea da, eta La Polla taldeak jorratutako bidetari eusten dio. Punk-rockaren joerak dituzte. Berdin gertatzen da Residuos taldearekin, hauek ere, beraien azken doinuak aurkeztera baitatoz.

Biharko bi kontzertuz gain, larunbaterako ere ekitaldi berezia antolatu dute Bonbereneakoek. Irlandar festa bat egiteko asmoa dute Bonberenean



Kaotiko taldearen irudi bat. HITZA

bertan. Festa honi bere giro irlandarra emateko Trulach taldearen eskutik irlandar doinuak entzungai etzi

haizezko instrumentuekin, Juanjo Otxandorena bouzoukiarekin eta Arkaitz Miner, berriaz, bibolinarekin eta mandiolarekin.

TOLOSA ▶ ANTZERKIA

‘Emakumeak izarapean’ antzezlanaren taularatuko dute bihar Leidorren

Tantaka antzerki taldearen lana emakumeen sexu bizitzaz hitz egiteko aitzakia da

ERREDAKZIOA

Tantaka antzerkia taldearen *Emakumeak izarapean* lana ikusteko aukera izango du bihar Leidor aretoan, 20:30ean. Txartelak Servikutxa, Telekutxa edota Kutxanet bidez eskuratu ahaliko dira, edo eguneko bertan, Leidorreko leihatilan ordubete lehenago azalduz gero.

Emakumeak izarapean antzezlanaren sexuaz mintzatzeko ikuskizuna da; emakumeen sexu bizitzaz hitz egiteko aitzakia. Emakumeek ohean dituzten irrika, fantasia, frustrazio, sekretu eta desirak dituzte minzagai. Agertoki gainean bost emakumezko, bost adin eta bost gizarte maila ordezkatzen

dituzte. Gizonezko bat ere izango da, hainbat paper jokatu dituen: aingeru guardakoa, konpainia goxoa, terapeuta, laguna, iritsi berri bat, oroitzapen bat, aita, suhiltzaileen burua... «Gure iritzian, gizonok bezala emakumeok, burua galartzen dugu maitasunaren alorrean; nor bere burua eta aldamenekoa maitatzeko ahalmenean, berdin dio bikotekidea, laguna edo ama izan. Baina, sexua praktikatzekoan, hain zuzen ere, maitaleak konfiantza behar du, kezkarik eza, bere buruari joaten uztea, atseginaren labirinto zentzugabe eta plazer emailan aurrera egiteko». Antzezlanerako testua idatzeko egiazko lekukotzak erabili dituzte. Hala, hor-



Mireia Gabilondo, egilea. HITZA

tik abiatutik, taulartzeko fikzioa ehandu dute, eta hasteko, bi galdera planteatu zituzten, ahalik eta emakume kopuru handienak idatziz erantzun zituzten: «Zer gertatu zaizu ez gertatzea gustatuko litzaizukeena?» eta «Zer nahi duzu gertatzea eta ez da gertatu?».

Lourdes Bañuelos eta Mireia Gabilondo dira egileak, eta aktoreei dagokionez, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Beatriz Martinez de Antofaña, Teresa Calo, Pilar Rodriguez eta Asier Hernandez izango dira taula gainean ariko direnak.

TOLOSA ▶

The Uski's bizkaitarrak ariko dira etzi, Leidorren

Sabino Arana fundazioak antolatzen duen Bertsopaper Lehiaketaren baitan

ERREDAKZIOA

The Uski's musika boskotea ariko da etzi Leidor aretoan, 12:00etatik aurrera egingo den Bertsopaper Lehiaketaren IV. aldiko sari-banaketa ekitaldian. *Barikun* beraien azken lana eskainiko du Bizkaiko taldeak bertako kantuekin ekitaldia girotuz. Sabino Arana fundazioak urtero antolatzen duen lehiaketari dagokionez, aurtengo edizioak Euskal Herri osoko ikasleen arteko 300 gaztetxotik gora izan ditu. Lau kategorietako irabazleak zein diren jakingo da bertan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA ▶

Herri batzarra
Agenda 21aren
inguruan

Alkizako Kultur Etxean herri batzarra egingo dute bihar, 20:30ean. Urte bete bada jada Agenda 21 prozesuaren baitan Udalak herritarren parte-hartzearekin sortutako ekintza plana onartu zuela eta bertan jasotako ekintzen gaur egungo egoeraren berri emango dute batzarrean. 2006an zer egin den, zer ez den egin, zergatik... jakin ahal izango dute herritarrek eta aldi berean aukera izango da datorren urteari begira zein gaiei heldu behar zaien etabaidatzeko. Herritar guztiei dei egiten zaie batzarrerara ager daitezten.

IBARRA ▶

Eider Ijurko
zoriontzeko
argazkia, bihar

Eider Ijurko preso politikoa- ren urtebetetzea hilaren 27an izango da. 26 urte beteko ditu eta horietatik bost preso eman ditu. Egun Kurtisen (Galizia) dago preso. Ijurko zoriontzeko argazkia ateratzeko deialdia egin du Etxeratek bihar, 19:30ean, Ibarako plazan.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sustapen lana. Bai Euskarari Akordioaren sustapen kanpaina egiteko pertsona euskalduna behar da Leitzaldean. Gida baimena eta autoa, beharrezkoak. 2 hilabete lanaldi erdian. Administrazio C maila. Curriculum helbide honetara bidali apirilaren 24rako: Elbarren 1, leitzaldea@euskalnet.net, 948 51 05 14 (Euskara Zerbitzua).

Estetizista. Tolosako ileapaindegi batetarako estetizista behar da. Deitu: 607 90 25 58.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar dugu Amasako tabernan. 943 69 12 10.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

SALGAI

Autoa. Opel Frontera 2.2 DTI Limited salgai. 2001. urtekoa. 80.000 km. 12.000 euro. 657 79 51 76.

Furgoneta. Furgoneta saltzen da lana egiteko aukerarekin. Interesatuak deitu ondorengo telefonora: 636 75 49 09.

IRURRA ▶ HEZKUNTZA

Herriko ikastolaren
eraikin berria aurki
egiten hasiko dira

Udaleko eta Ikastolako arduradunek herriarentzat «esfortzu handia» suposatuko duela adierazi dute



Miguel Amenabar, Marimi Ugalde eta Josune Aiestaran, atzo agerraldiaren une batean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Irurako Ikastolaren eraikin berria aurki eraikitzen hasiko direla azaldu zuten Marimi Ugalde alkateak, Miguel Amenabar Ikastolako lehendakariak eta Josune Aiestaran zuzendariak atzo egindako agerraldian. *Herrian hazi eta herrian hezi* leloa ezarri diote proiektuari, haurrek hezkuntza herrian jasotzeko berebiziko garrantzia ematen baitiote.

Eraikin berriak herriarentzat «esfortzu handia» eskatuko duela zehaztu zuten hirurek. Hala, Irurako Udalak lurrak utziko ditu eta 600.000 euroko diru laguntza emango du eta hori guztia eskertu zuten Ikastolako arduradunek. Bestalde, atzo ofizialki esan ahal izan zuten Aiestaranez Kilometroak

2008 Irurran egingo dela. Dagoeneko martxan dituzte dendak eta ibilbidearen lan taldeak ekitaldi horri begira.

«Eskarmentua antolatzen»

Eraikin berria frontoiaren atzean egingo dute, Zilar kalean. 1,5 milioi euroko kostua izango du. Udalaren laguntza eta Kilometroak ekitaldiaren diru iturriaz gain, Ikastolen Elkarreko solidaritate kutxatik 300.000 euro lortu dituzte. Gurasoek ordaintzen dituzten kuotetatik ere atera behar dela adierazi zuten proiektuaren bultzatzaileek.

Aiestaranez azaldu zuenez, «Ikastolaren inguruan mugitzen garen guztiok eskarmentua dugu ekitaldiak antolatzen dirua ateratzeko, bai Garagar-

do Azoka dela bai festetan jartzen den taberna. Proiektua aurrera eramateko ere behar dugu jendeak parte hartzea».

Marimi Ugalde alkateak azaldu zuenez, «orain 12 urte planifikazioa egiten hasi ginean, konturatu ginen herria hazi egingo zela eta, beraz, zerbitzuak gehitu egin behar genituela. Etorkizunerako oinarria eskola zen».

Etzi eraikinaren lehen harria jarriko dute. 12:00etan elkartuko dira plazan eta ekitaldia burutu ondoren lunch bat eskainiko dute frontoian. Lanak hamabost egun barru hastera aurrerakosten dute eta 2008ko ikasturte hasierarako eta, beraz, kilometroak egiterako, eraikina prest egotea nahi dute.

Irurako
«okupak»

Egun Irurako Ikastolan 2 urtetako gelatik hasi eta LH5 maila arteko ikasleak daude. Datorren ikasturtean LH6ko gela ere martxan jarri nahi dute. Hain zuzen, eraikin berria Lehen Hezkuntzakoentzat izango da. Haur Hezkuntzakoak Ikastolaren egungo eraikinean geldituko dira.

Eraikin berri bat egiteko beharra premiazkoa dela zehaztu zuten Miguel Amenabar Ikastolako lehendakariak. «Egun lau eraikin eraikitzen ditugu. Ikastolaren eraikin bera, apeztekoa, liburutegia eta informatikako klaseak emateko KZgunea. Irurako okupak deitzen digute».

Amenabarrek Ikastolaren historiaren errepaso ere egin zuen. «Gazte Alaiak elkarrekin jarri zuten martxan 1977an apeztekoan, euskara bultzatzeko asmoz». Hasieran Haur Hezkuntzara zuzenduta izan zen. 1985. urtean eskola publikoko eraikinerara pasatu ziren. 1996an bigarren gela ateratu zen eta hurrengo urtean hirugarren gela.

Hurrengo aldaketa nagusia 2003. urtean egin zuten. Lehen Hezkuntzako 1. maila martxan jarri zuten eta urtero beste maila bat jartzen joan dira. «Orain 2 urteko gela eta LH5eko gela ez ditugu adostuta administrazioarekin, beraietzako atondutako lekuei ez deritzotelako egokiak», dio Amenabarrek. «Hau da, ez dugu dirurik jasotzen bi gela horientzako, eta beraz, antolatzen ditugun ekitaldietako dirua bi gela horien gastuak ordaintzeko erabili behar izaten dugu». ◀

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel/faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

<p>Alegia. Azken bi moduloko, 350 m2koak. Kokapen ezinhobeak.</p> <p>Amasa. 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.</p>	<p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berrituko.</p> <p>Belauntza. Pabilioia alokairuan, instalaturik.</p> <p>Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.</p> <p>Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.</p> <p>Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.</p> <p>Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.</p> <p>Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra eta abeltzaintzarako ustiatetarekin.</p> <p>Lizartza. 900m2ko bi modulo salgai. Prezio interesgarria.</p>	<p>Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarri.</p> <p>Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p> <p>Tolosa. Ugarran Goenian, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.</p> <p>Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberrituko.</p> <p>Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoak alokairuan edo salmantan.</p> <p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egonela, sukalde eta komunarekin.</p> <p>Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai Zabalartetan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.</p> <p>Tolosa. Santa Klaran, 90 m2ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.</p> <p>Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trasteleku.</p> <p>Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.</p> <p>Tolosa. Laskorain kalea. Behe solairuan etxebizitza. Berritua.</p> <p>Tolosa. Maituna zaharra. Azken garaje itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Lanak laister hasiko dituzte.</p>
--	--	---

ZIZURKIL ▶ KULTURA

V. Antzerki Astea, kalean eta denentzat

Helburu nagusia adin guztiei antzerkira hurbiltzea izango da

NEREA URBIZU

Zizurkilen beti egon den antzerki tradizioarekin jaio zen herriko Antzerki Astea. Aurten goa bosgarrena izango da, eta helburu nagusia, adin guztiei zuzentzea eta iristea izan da.

Zizurkilgo alkatea Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea kultur teknikaria izan zirentzat aurkezpenean. Larreak esan zuen bezala, «aurtengo helburu nagusia adin desberdinetara iristea da, eta aurreko urteetan bitzako esperientziak ikusita ez da masa handia mugitzen duen generoa». Horregatik, kale antzerkia ere landu-

ko dute, jendeari gehiago hurbiltzeko. «Ostiralean eta larunbatean kalera aterako dira antzerkia egitera: hauek animatuak izango dira».

Astelehenean haurrentzako Andersen *Ahatetxo itsusia* izango da 15:30ean, Atxulondo kultur etxean. Asteartean, berriz, gazteentzat aproposa den *Bota Patsa* izango da Villabonako Gurea antzokian, Iker Galarza eta Joseba Usabiagarekin.

Hilaren 25ean, Belatrix taldearen *Erase una vez la opera* antzezlan musikatuak izango da 17:00etan.

Ostegunean Pedro Mari ota-



Prentsaurrekoan, Ainhoa Larrea eta Marian Lazkano. N. URBIZU

ño ikastetxeko haurren txanda izango da eta bi antzezlan presatatu dituzte egun horretarako: 15:30ean izango da Kultur Etxean bertan.

Ostirala eta larunbata kaleko antzerkia izango da. Lehena 19:00etan Joxe Arregi plazan zirko batekin ondo pasatzeko aukera izango da, eta bukatzeko larunbatean 22:30ean Zizurkil Goiko plazan Niño Costrini argentinarrek umorea eta absurdoa landuko ditu. «Luxu bat da halako antzerkiak herri txiki batean izatea», adierazi zuen Ainhoa Larreak, eta denak, gainera, doan izango dira.

EGITARAU ▶ EGUNEZ EGUN

APIRILAK 23, ASTELEHENA
Andersen *'Ahatetxo itsusia'*. 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzako antzerkia Abxulondon, 15:30ean.

APIRILAK 24, ASTEARTEA
'Bota Patsa'. Gazteei zuzenduriko emanaldi berezia. 11:00etan Gurea antzokian, Kutxa Kultur ekintzaren eskutik. Iker Galarza eta Joseba Usabiagaren komedia.

APIRILAK 25, ASTEAZKENA
'Erase una vez la opera'. Belatrix taldearen eskutik, 17:00etan Abxulondon, Kutxa Kultur ekintzaren eskutik.

APIRILAK 26, OSTEGUNA
Pedro Mari Otaño *ikastetxeko saioa*. 15:30ean Abxulondon haurrek bi antzezlan egingo dituzte: horien artean *Hiru txerrikumeak*.

APIRILAK 27, OSTIRALA
Azulkillak zirko taldea. 19:00etan Joxe Arregi plazan izango da, kaleko antzerki dibertigarria.

APIRILAK 28, LARUNBATA
Niño Costrini. 22:30ean Zizurkil Goiko plazan. Probokatzailerik izateko jaioa, ironia eta sarkasmoa erabiltzen ditu adierazteko. Trebezia fisikoa ere erakutsiko du.

ALEGIA ▶ PILOTA

Zazpie Pasa Txapelketako finalerdiak, igandean

11:00etan jokatuko dituzte eta bi partidak jarraian izango dira, herriko pilotalekuan

N. URBIZU

Zazpie Pasa Pilota Txapelketako finalerdiak Alegiko pilotalekuan jokatuko dituzte, baina larunbatean beharrean (HITZA Pilota Txapelketako lehen partidak izango baitira), igandean, 11:00etatik aurrera.

Alegiarrak izango dira binakako pilota partida borroka-

tuak jokatzen. Iriarte-Zubeldia eta Jon eta Beñat Murua anaiak izango dira frontoian ariko diren lehenak. Bigarren partida, berriz, Gari-Beñat eta Galarreta-Artolaren artekoa izango da.

Dagoeneko, bi urtez egin da txapelketa hau. Pilotari hauek animatzeko jendea ere behar du Alegiko pilotalekuan, barre batzuk egiteko bada ere.



Final-Haurdenetan. E. EZEIZA

VILLABONA ▶

Bai Euskarari Ziuertagiriaren banaketa gaur, Gurea aretoan

N. URBIZU

Gaur 20:30ean Villabonako Gurea aretoan Kontseiluak Bai Euskarari Ziuertagiriaren banaketa egingo du. Bertan, Tolosaldeko 70 bat eragilek jasoko dute ziuertagiria. Ekitaldia irekia izango da.

Martxoan eta apirilaren zehar Tolosaldeko euskalgintza aurkezpen ekitaldiak antolatatu ditu, ziuertagiriari buruzko informazioa emateko.

BIDEGOIAN ▶

Korri eta Xalto pailazoak herri eskolan izango dira etzi

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak Bidegoiango herri eskolan pailazoan emanaldia antolatatu du etzira.

Korri eta Xalto pailazoak Bidegoianera joango dira emanaldia egitera etzi, eta arratsaldean, 17:45etik aurrera izango da. Barre batzuk egiteko balioko du, bai txiki-entzate eta baita gurasoentzate ere.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Bidegoian. KZgunean mikologia hizpide izango duen mintegia, 11:00etatik 13:00etara.
Ikaztegieta. Elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia emango dute liburutegian, 17:00etatik aurrera, Kutxako gizarte ekintzak antolatuta.
Tolosa. Egokue-Aldude (Behe Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).
Tolosa. Udaberri dantza taldeko kideek hasi dituzte dagoeneko Bordon dantzarako entseguak. Hauek ostegunetan izango dira, 20:30ean, Usabal kiroldegian.
Tolosa. Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afora antolatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatz, Orbela eta Mescalen.
Villabona. Errozate-Urkulu (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkartean edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

ZINEMA

Tolosa. Clint Eastwood zuzendariaren *Cartas desde Iwo Jima* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaroiz auzoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Iraulii uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Txuri-urdin maitea...»

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaur da Aste Santuko argazkiak bidaltzeko azken eguna; Rakelek eta Nereak ere bidali dituzte euren oporraldiko irudiak

ASTURIAS ▶

Rakel Albeniz (Tolosa).

Rakel Albeniz tolosarra Asturias aldera egin du irteera Aste Santuan. Hain zuzen, apirilaren 7an ateratako argazkia bidali digu. «Coto bello, Aller deritzen kontzejuan dagoen irudia da honakoa Bello herrian. Ikusten diren mendiak, Kantauriko mendikatekoak dira, Asturias eta Leon artekoak.»



MAROKO ▶

Nerea Lopetegui Garmendia (Leaburu).

Eskualdeko turista ugari hartu ditu egunotan Marokok. Horien artean izan da Nerea Lopetegui leaburuarra. Argazki bitxi hau bidali digu oraingoan. «Ibasoa ote? edo zerua? ezba argazkiko urdin distiratu hau, Marokoko Chaouen herriko kale ederren artean aurkituriko etxe sarrera batena da», azaldu digu argazkiarekin batera Nereak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maitane Sorarrain
(Anoeta). Gaur 7 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.

URTE ASKOAN
Lander Huarte Leunda (Iruira). Gaur urtebete. Zorionak eta muxuak aitona, amona eta osabaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...